

1- ENTZUN AURRETIK

1.1 Gogoratzen?

Talde txikitan jarri eta ondoko puntu hauek komentatu:

- Non ikusi dituzu olaturik handienak? Noiz?
- Busti zaituzte inoiz?
- Joan zara inoiz olatuetan bustitzera?



- *Behin blai eginda bukatu nuen. Ez ziren oso olatu handiak, baina bat-batean batek indarrez jo eta danba!*
- *Olatuak oso handiak direnean debekatuta dago hurbiltzea. Eskerrak, bestela...*

2- ENTZUN BITARTEAN

2.1 Hori buila!

Entzun elkarrizketa eta lagunekin adostu erantzunak.

Nolakoak dira olatuak hasieran?

Nork ordaindu behar ditu garagardoak?

2.2 Blai nago

Entzun berriro.

Nolako zuloak egin zituen itsasoak pasealekuan?

Zein da apustua?

3- ENTZUN ONDOREN

3.1 Tira!



Elkarrizketa laburretan askotan erabiltzen ditugu interjekzioak edo bat-bateko emozioak adierazteko moldeak. Gaurko audioan, esaterako, hauek atera dira: lasai, goazen, kontuz, begira, geldi, ados, kaka, tira, banoa, badator...



Hemen dituzu agertu diren zenbait esaldi. Horietatik hitz hauek kendu ditugu: **banoa, goazen, kaka, geldi, ados, lasai, tira, kontuz**. Jarri bakoitza bere lekuan eta komentatu erantzunak ondokoarekin.


<ul style="list-style-type: none"> •, txikiak dira eta! • Itxaron, Ni ere •, hori oso handia da-eta! • denok atzera. 	<ul style="list-style-type: none"> • denok hemen! • Bale! •! Beranduegi alde egin dut. •! Goazen arropa aldatzera.
--	--

3.2 Itsasoa dago.

✖ Ikusi [Portuan](https://www.youtube.com/watch?v=8fy6Afi8j_g) izeneko bideoa eta esan bururatzen zaizkizuen hitz guztiak.
https://www.youtube.com/watch?v=8fy6Afi8j_g



3.3 Txanpa!

 Ikusi berriro poliki bideoa, eta, launaka jarrita saia zaitetze bideoaren bikoizketa sinple bat egiten (nahikoa da esaldi gutxi batzuk sartzea), telebistarako kontatu beharko bazenute bezala.